

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 166/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea ikus-entzunezkoen sorkuntzarako 2021eko laguntzen deialdiari

Arabako Foru Aldundia, Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa sustatzeko duen zereginaren barruan, 2018an hasi zen kultura eta sormen industriei laguntzen, bereziki ikus-entzunezkoen azpisektorearen ekintzaitzari eta sendotzeari.

Gainera, 2020an "A Plana" onetsi zen, zeina baita ekonomia suspertzeko asmo handiko plan bat, 2021. urte honetan ere jarraitzen duena. Plan horren neurrien artean zegoen laguntza deialdi hau indartzea.

Arabako Foru Aldundiaren asmoa da Arabako ikus-entzunezkoen industriari laguntzen jarraitzea.

Horiek horrela, proposatzen da ikus-entzunezkoen proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidioak idazteko dirulaguntzen deialdia egitea, betiere Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan (ALHAO, 143. zk., 2019ko abenduaren 13koa), hartara ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearren publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioak eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Horretarako, 290.000,00 euro egongo dira guztira, eta aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

- 110.000,00 euro 21.1.21.1.15101.0801.7700013 "Kultura eta Sormen Industriak" partidaren kontura, 2021eko ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontu antolamendutik.
- 90.000 euro 21.3.22.1.15101.0801.7700013 "Kultura eta Sormen Industriak" 2022rako konpromiso kredituen kontura.
- 50.000,00 euro 2.1.21.1.15101.0801.7700011 "A Plana: KSI Errefortzua" partidaren kontura, 2021eko ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontu antolamendutik.
- 40.000,00 euro 21.3.22.1.15101.0801.7700011 "A Plana: KSI Errefortzua" 2022rako konpromiso kredituen kontura.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea ikus-entzunezkoen sorkuntzarako 2021eko laguntzen deialdia (erabaki honi erantsi zaio).

Bigarrena. Honako hauek arautuko dute deialdi hau: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren eskumenen esparruan, norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak onetsi baititu (ALHAO, 143. zk., 2019ko abenduaren 13koa), eta dekretu honen eranskinean ezarritakoak.

Hirugarrena. Erabaki honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbateko osoa 290.000,00 eurokoa izango da, eta honela ordainduko da: 110.000,00 euro 21.1.21.1.15101.0801.7700013 "Kultura eta Sormen Industriak" partidaren kontura, eta 50.000 euro 21.1.21.1.15101.0801.7700011 "A plana: KSI Errefortzua" partidaren kontura, biak Arabako Foru Aldundiak 2021erako indarrean duen aurrekontu antolamendukoak; eta 90.000,00 euro 21.3.22.1.15101.0801.7700013 "Kultura eta Sormen Industriak" 2022rako konpromiso kredituaren kontura, eta 40.000,00 euro 21.3.22.1.15101.0801.7700011 "A Plana: KSI Errefortzua" 2022rako konpromiso kredituaren kontura. Xedapen erreferentziak hauek dira, hurrenez hurren: : 21.1.21.105.741, 21.1.21.105.742, 21.3.22.105.25 y 21.3.22.105.26.

Kopuru osoa 3. artikuluan ezarritako modalitateen artean banatuko da, honela:

– Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzak: 80.000,00 euro.

– Film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak: 80.000,00 euro.

– Film laburrak ekoizteko laguntzak: 50.000,00 euro.

– Serieak ekoizteko laguntzak: 50.000,00 euro.

– Gidoiak idazteko laguntzak: 30.000,00 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio funts horiek birbanatzeko, Balioespen Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Era berean, emandako dirulaguntzak subrogatu ahal izango ditu deialdi hau oinarri hartuz erakunde onuradunek interes ekonomikoko taldeak eratzen dituztenean diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko, betiere horien xede soziala ekoizpen jarduerak egitea baldin bada eta erakunde berriak deialdi honetako onuradun izateko betekizunak betetzen baldin baditu.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorriz, berraztertze aukerazko errekurtsoa jarri ahal izango da Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu ondorengo egunetik hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunean eraginak izango ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea era Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA

ikus-entzunezkoen sorkuntzarako 2021eko laguntzen deialdia

I. kapitulua

Arau orokorrak

1. artikulua- Xedea

Deialdi honen xedea norgehiagoka araubidean eta funts galduan laguntzak ematea da 2021eko ekitaldian ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko.

2. artikulua. Laguntza motak

Hauek izango dira laguntza motak:

2.1. Zinema, plataforma digitalak eta telebista proiektuak gauzatzeko laguntzak, deialdi honen II. kapituluan ezarritako terminoetan.

2.2. Ikus-entzunezko lanak ekoizteko modalitate hauetarako laguntzak, deialdi honen III. kapituluan ezarritako terminoetan:

- a) Film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak. (I. atala).
- b) Film laburrak ekoizteko laguntzak (II. atala).
- c) Serieak ekoizteko laguntzak (III. atala).

2.3. Gidoiak idazteko laguntzak, deialdi honen IV. kapituluan ezarritako terminoetan.

3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehienezko zenbatekoa

Deialdi honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

110.000,00 euro 21.1.21.1.15101.0801.7700013 "Kultura eta Sormen Industriak" partidaren kontura, eta 50.000,00 euro 21.1.21.1.15101.0801.7700011 "A plana: KSI Errefortzua" partidaren kontura, biak Arabako Foru Aldundiak 2021erako indarrean duen aurrekontu antolamendukoak; eta 90.000,00 euro 21.3.22.1.15101.0801.7700013 "Kultura eta Sormen Industriak" 2022rako konpromiso kredituaren kontura, eta 40.000,00 euro 21.3.22.1.15101.0801.7700011 "A Plana: KSI Errefortzua" 2022rako konpromiso kredituaren kontura. Xedapen erreferentziak hauek dira, hurrenez hurren: 21.1.21.105.741, 21.1.21.105.25, 21.3.22.105.742 y 21.3.22.105.26.

Kopuru osoa 2. artikuluan ezarritako modalitateen artean banatuko da, honela:

- Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzak: 80.000,00 euro.
- Film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak: 80.000,00 euro.
- Film laburrak ekoizteko laguntzak: 50.000,00 euro.
- Serieak ekoizteko laguntzak: 50.000,00 euro.
- Gidoiak idazteko laguntzak: 30.000,00 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio funts horiek birbanatzeko, Balioespen Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz. Era berean, emandako dirulaguntzak subrogatu ahal izango ditu deialdi hau oinarri hartuz erakunde onuradunek interes ekonomiko taldeak eratzen dituztenean diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko, betiere horien xede soziala ekoizpen jarduerak egitea baldin bada eta erakunde berriak deialdi honetako onuradun izateko betekizunak betetzen baldin baditu.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Onuradunak

4.1. Onuradunek egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan izan beharko dute.

4.2. Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzen eta ikus-entzunezko lanak ekoizteko laguntzen kasuan (2. artikuluko 2.1., 2.2.a., 2.2.b. eta 2.2.c. modalitateak) onuradunak pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak izan ahalko dira, baldin eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea laguntza eskatzen duten jarduerari dagokiona bada, eta Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko (ICAA) Zinematografia eta Ikus-entzunezko Enpresen Erregistroan (I. atala, ekoizpena) inskribatuta badaude (edo, gutxienez, eskaera inskribatzeko zain bada).
Pertsona pribatu independenteak” izango dira Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.n) artikuluan hala definituta daudenak.

Onuradunak izan ahalko dira baita ere interes ekonomikoko taldeak. Ondorio hauetarako ekoiztetxe independenteekiko baliokideak izango dira IET taldearen barne dauden eta independenteak ez diren ekoiztetxeek zuzenean edo zeharka bere kapital sozialaren ehuneko 20 baino gehiagoko ehunekorik ez badute, Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.n).1.2. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

4.3. Gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (2. artikuluko 2.3. modalitatea), onuradunak izan ahalko dira dagokion JEZaren epigrafean jarduera profesionaltzat gidoiak idaztea duten pertsona fisikoak.

4.4. Albo batera utzi gabe pertsona bakoitzak eta modalitate bakoitzerako gehienez ere bi proiektu aurkeztu ahal izatea, dirulaguntza bakarrik pertsona eta modalitate bakoitzeko proiektu batek jasoko du. Ezin izango da deialdi berean laguntza modalitate bat baino gehiagoan proiektu bera aurkeztu. Proiektu bat modalitate bereko laguntzen hiru deialditara aurkeztu ahal izango da gehienez.

4.5. Edonola ere, kanpoan geratuko dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta jarduera asoziatiboak edo profesionalak gauzaten dituztenak (elkarteak, elkargo profesionalak, eta abar).

4.6. Onuradunek egunean izan beharko dituzte Gizarte Segurantzako zerga betebeharrak.

4.7. Ezingo dira onuradunak izan berdintasun terminoekin bat eginez emakumeen eta gizonen presentzia eta/edo parte hartzea galarazten dutenak. Salbuespena izango dira sexu bakarreko kideekin eratuak daudenak, horien xede nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen edo gizonen interes eta behar espezifikoak sustatzea baldin bada.

4.8. Arabako Lurralde Historikoen Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan zehaztutako betekizunak bete beharko dituzte.

4.9. Laguntza hauen aurreko deialdietan dirulaguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira modalitate berean aurkeztu, eskaria aurkezten duten unean aurreko laguntza horri uko egin ez badiote eta jasotako zenbateko guztiak itzuli ez baldin badituzte, dirua kobratu izanez gero.

4.10. Aurreko betekizunak eskaria aurkezterako unean bete beharko dira eta dirulaguntzaren prozesu guztian mantendu beharko dira (emakida, betebeharra aintzatestea, ordainketa eta justifikazioa). Betetzen ez badira, laguntza ukatu edo itzuliko da, ez betetze horiek gauzaten diren unearen arabera.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

5.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta hurrengo hilabeteko egun berdinean bukatuko da, 14:00etan, edo egun hori baliogabea baldin bada hurrengo egun balioduneko 14:00etan.

5.2. Ahal dela, eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez aurkeztuko dira (<https://e-s.araba.eus/>). Horretarako, eskatzaileek ziurtagiri elektronikoa izan behar dute aurretik.

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean ere aurkeztu ahal izango dira (Probintzia plaza 5. zenbakia, 01001 Vitoria-Gasteiz) eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzura zuzenduta egongo dira, albo batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehaztutakoa.

5.3. Eskabideak aurkezteko, web-formularioa bete beharko da – aurkezpen elektronikoa izanez gero –, edo eskabide ereduak, Arabako Foru Aldundiaren webgune instituzionalean eskuragarri dagoena (<https://web.araba.eus/es/desarrollo-economico/ayudas>) – paperean aurkeztuz gero –, eta eskabide bat aurkeztuko da hautatzen den proiektu eta laguntza modalitate bakoitzeko.

5.4. Eskariarekin batera deialdi honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, laguntza eskatutako modalitatearen arabera.

5.5. Eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak edo Zerbitzuak laguntzaren eskaera orrian adierazten den harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

5.6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 4. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiria, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak.

6. artikulua. –Prozedura izapidetzeko eskumenak dituzten organoak

6.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

6.2. Balorazio Batzorde bat eratuko da, honako kide hauek izango dituen:

– Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Kideak: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikari bat.

Eskabideak balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera ebaluatzeko, Balorazio Batzordean aditu/profesional independenteek parte hartu ahal izango dute. Aditu horiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, honakoak adieraziz: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio kausetan ez daudela sartuta, konfidentzialtasuna bermatzen dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko proiektuen balorazioa ez den beste helburu baterako, deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera, eta, ebazpen proposamena eman ondoren, espedienteetako dokumentazio guztia suntsitu egingo dutela, edo jatorrizkoak badira, prozeduraren instrukzio-organismoari itzuliko ditela. Izendapen horiek Ekonomiaren Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatuaren ebazpen baten bidez onartuko dira, eta ebazpen hori argitara emango da, interesdunek errefusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, lege ezarritako egoera eta baldintzetan.

Dirulaguntza modalitate bakoitzeko Balorazio Batzordeak dirulaguntzaren emate/ukatze proposamenekin batera, zeintzuk ebazpenerako eskumenak dituen organora bidaliko dituen, txosten bat egingo du, eta txosten horretan sailkapen antolatua jasoko da emandako puntuazioen arabera, onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituzten eskariekin sortutakoa. Zerrenda hori erabiliko da, hala badagokio, baldin eta erakunde onuradunetako batek emandako laguntzari uko egiten badio edo laguntza onartzen ez badu; horrela, baliabide horiekin diru kopuru nahikorik ez izateagatik, osorik edo zati batean, diruz lagundu ezin izan diren proiektuak finantzatu ahal izango dituzte.

7. artikulua. Dirulaguntza ebaztea eta jakinaraztea

7.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordeak proposatuta, behar diren ebazpenak emango ditu; ebazpen horiek banaka jakinaraziko dira, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

7.2. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat eginez berraztertze aukerazko errekurtsoa jarri ahal izango da Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteko epean eskumenak dituen jurisdikzioan.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

a) Berriaz onartuko dute emandako laguntza emakida jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean. Ez bada onartzen, dirulaguntzari uko egiten zaiola ulertuko da.

b) Laguntza emandako xede zehatzerako erabiliko dute.

c) Diruz lagundutako proiektua aurkeztutako eskaeraren arabera onartutako terminoekin bat eginez egingo da. Dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren funtsezko alderdiak edo elementuak aldatu nahi badira proiektuan, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari eskaera egingo zaio aldaketa horiek egin baino lehen. Hark baimena ematen duenean baino ez da onartuko aldaketa.

d) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduerak beteko dituzte, finantza kontrolak eta/edo Kontu-hartzailetzak egindako kontrolak beteko dituzte eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak beteko dute.

e) Eskariaren berri emango diote Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzari eta/edo deialdi honetako gastu berdinak finantzatzeko administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik, nazionaletatik edo nazioartekoetatik bestelako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzearen berri emango dute laguntza horiek jasoko dituztela jakitean.

f) Arabako Foru Aldundiak eskatzaileei aurkeztutako dirulaguntza eskaria baloratzeko egokitzen jotzen dituen azalpen eta agiri guztiak eskatu ahal izango dizkie.

g) Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi berriaz aipatu beharko dute Arabako Foru Aldundiaren lankidetzaren egiten dituzten publizitateko euskarrietan edo plataformetan. Era berean, aldundiaren finantzaketaren berri eman beharko dute jendaurrean, Arabako Foru Aldundiaren logotipoa jarriz dirulaguntza jasotako jardueran sortutako edo erabilitako erakusketa eta hepdapen bitartekoetan.

h) Deialdi honen laguntza modalitate bakoitzerako ezartzen direnak eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kargurako laguntzak eta dirulaguntzak jasotzearen ondorioz ezarritako gainerako betebeharrak eta zereginak.

i) Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutakoak.

9. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekin bateratzea

Modalitatearen arabera ezarritako mugak albo batera utzi gabe, laguntzen zenbatekoak edonola ere ezin izango du bakarrik edo beste dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin edo baliabideekin bateratuta dirulaguntzaren jardueraren kostua gainditu. Gainfinantzaketa publikoa egonez gero, emandako laguntzaren kopurua murriztuko da dagokion gehieneko kopurura arte.

10. artikulua. Itzultzeko arrazoiak eta araubide juridikoa

Itzultzeko arrazoiak izango dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoak. Foru arau horretako 35. artikuluko f) apartatuak dirua itzultzeko ezartzen duen betebeharraren ez-betetze erabakigarritzat joko dira honako hauek:

– Arabako baliabideen gutxieneko ehunekoak betetzen ez badira, dirulaguntza itzuli beharko da ez-betetze horren zati proportzionalean, salbu eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz behar bezala justifikatzen bada.

– Emandako dirulaguntza onartzean berariaz hartutako konpromisoak betetzen ez badira, konpromisoen jatorria erakunde onuradunak eskarian adierazitakoa baldin bada eta kontuan hartu badira eskaria baloratzeko, kalkuluak egingo dira berriz ere, eta espedientearen balorazioa datu errealak kontuan hartuz nolakoa izango litzatekeen kalkulatu da; gainerako parametroak ez dira aldatuko. Hori guztia, gutxienez dirulaguntza jaso zuen azken proiektuaren puntuazioa jasotzen ez bada itzulketa eskatzeko, edo hori baldin bada, dirulaguntza jaso ez zuen azken proiektuaren itzulketa eskatzeko.

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.

II. kapitulua**Proiektuak garatzeko laguntzak****11. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak eta gastuak**

11.1 Honako zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak:

a) Zinemarako lanak:

– Fikzioa, animazioa, sormen dokumentalak: 60 minutu baino gutxiago ez dutenak.

b) Plataforma digitaletarako eta telebistarako obrak:

– Fikzioa, animazioa eta sormen dokumentalak (banakako proiektuak): 45 minutu baino gutxiago ez dutenak.

– Fikzioa eta sormen dokumentalak (serieak): Kapitulu bakoitzak 22 minutu baino gutxiago ez duenean.

– Animazioa (serieak).

11.2. Kasu guztietan ere "proiektua garatzea" izango da ikus-entzunezko ekoizpen bat prestatzea eta diseinatzea, ekoizpen fase aurreko lanak gauzatzeko hain zuzen ere.

11.3. Gastu hauek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak:

a) Lanaren egile eskubideak jasotzea.

b) Gidoia idaztea: gidoia berriz ere idaztea edo egokitzea, kanpoko aholkularitza, itzulpenak. Jasotako dirulaguntzaren ehuneko 20 gutxienez ere gidoia idazteko erabiliko da.

c) Promozionatzeko materiala diseinatzea eta sortzea: inprimatutako materiala, edo material digitala, teaser-a, programa pilotua, story board-a, komunikazio bideak (webgunea, sare sozialak, eta abar).

d) Marketin eta banaketa plana egitea.

e) Koprodukzioko merkatuetara eta foroetara joatea: joan-etorrietarako eta ostatueterako gastuak eta akreditazioak.

f) Casting-a eta kokapenak bilatzea.

g) Ikerketa dokumentala, grafikoa (animazio proiektuetan) eta artxiboen bilaketa.

h) Lana kudeatzeko langileen gastuak (gehenez ere aurrekontuaren ehuneko 15).

i) Aurkeztutako proiektuarentzako aholkularitza juridikoa eta fiskala: aholkularitza eta koprodukzio, aurre salmenta eta lanaren eskubideko kontratuak eta proiektuan parte hartuko duten profesionalekin egindako kontratuak idaztea.

j) Gastu orokorrak (gehenez ere aurrekontuaren ehuneko 5).

11.4. Onuradunak proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 30ekin baliokidea den ehuneko gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisikoek eta juridikoek egindako lanetarako erabili beharko du. Koprodukzioa egonez gero ehuneko 30 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

11.5. Proiekturako aurrekontuak ez du ekoizpenaren aurrekontu osoaren ehuneko 20 gaindituko.

12. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Behar bezala betetako eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

12.1. Eskatzailearen agiriak:

a) Laguntza eskatzen duenaren nortasuna egiaztatzea.

b) EJZren 961.1 epigrafean "film zinematografikoen ekoizpena" alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuko (ICAA) Zinematografia eta Ikus Entzunezko enpresen erregistroaren I. atalean, ekoizpena, izena emanda dagoenaren ziurtagiria.

12.2. Proiektuari buruzko dokumentazioa:

12.2.1 Eskatutako agiriak:

a) Proiektu berarentzako eskatutako eta jasotako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena eta horien zenbatekoa, ezarritako ereduaren arabera.

b) Proiektuaren memoria, honako hauek jasotzen dituen:

- Proiektu mota.
- Proiektuaren azalpen artistikoa.
- Garapen plana, aurreikusitako ekintza guztien deskribapen zehatza eta ekintza bakoitzaren hasiera eta amaiera datak jasoko dituen.

c) Gidoiaren sinopsia.

d) Gidoia, edo gidoirik ez badago, gidoiaren tratamendua (gehenez ere 30 orrialdekoa). Seriea baldin bada kapitulu baten gidoi osoa eta gainerako episodioen gidoiaren sinopsia.

e) Jatorrizko gidoiaren eta/edo lanaren jabetza eskubideen ziurtagiria, eta horrelakorik ez baldin badago, egiaztatu egin beharko da hitzartuta daudela eskubide lagapeneko kontratuaren aukera eta etorkizun baldintzak. Animazio obren kasuan, proiektuaren oinarri izango diren diseinu grafikoaren, marrazkien, sorkuntza plastikoaren edo irudien titulartasuna egiaztatzea.

f) Proiektuaren aurrekontu banakatua, partiden arabera zehaztua. Horretan jaso beharko dira aurreikusitako gastu guztiak eta finantzaketa plana, ezarritako ereduaren arabera.

g) Ekoizpenaren aurrekontu orientatzaile globala eta finantzaketa plana.

h) Proiektuaren zereginak gauzatzeko gidoilariarekin eta zuzendariarekin sinatutako akordioa.

l) Koprodukzioko kontratuak, baleude.

12.2.2 Agiri osagarriak:

a) Ekoiztetxearen historiala, "Ekoiztetxearen historiala" eranskinaren arabera, eta ikusle kopurua edo txarteldegiko emaitzak, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero. Gainera, hurrengo bi urteetarako ekoizpen aurreikuspenak ere aurkeztu beharko dira, proiektuaren eratze maila adierazten duen dokumentazioarekin batera.

b) Zuzendariaren eta gidoilariaren historial artistiko profesionala, txarteldegietako emaitzak edo ikusle kopurua, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero.

Zuzendariak eta/edo gidoilariak aurretik beste film luzerik egin ez baldin badu baina film laburrak edo serieak egin baditu, horiek dauden webguneetako estekak.

c) Erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo interes gutunak, proiektuan parte hartuko duten arduradun artistikoei sinatuak. Horietan adierazi beharko da, hala badagokio, Arabako egoitza.

d) Koproduktoreak, ekoiztetxe bazkidetuak eta banatzaileak bilatzeko plana, balorazioan kontuan hartua izan dadin.

e) Hala badagokio, emakumeak zuzendaritza lanetan, ekoizpen exekutibo lanetan eta/edo gidoia lantzeko lanetan parte hartu izana egiaztatzen duten agiriak, adibidez kontratuak, edo kontratutik ez baldin badago profesionalen interes eskutitzak eta/edo erantzukizunpeko adierazpenak.

13. artikulua. Balioespen irizpideak

13.1. Eskaerak baloratzeko, jarraian adierazten diren irizpideak erabiliko dira eta, gutxienez, 50 puntu beharko dira proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan.

a) Proiektuaren kalitatea eta balio artistikoa (gehienez 40 puntu): Gutxienez, 20 puntu lortu behar dira irizpide honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko. Ikus-entzunezko proiektuak laguntza jaso badu gidoiak idazteko modalitateko aurreko deialdietan, 5 puntu gehituko zaizkio irizpide honi, betiere horretarako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada. Hala ere, laguntza hori kontuan hartzeko, emandako dirulaguntza behar bezala gauzatu eta justifikatu beharko da, dagokion deialdiaren araudiaren arabera.

— Proiektuaren originaltasuna eta egingarritasuna (20 puntu, gehienez).

— Aurkeztutako gidoiaren edo tratamenduaren kalitatea (20 puntu, gehienez).

b) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 30 puntu):

a. Inplikaturako enpresa eta giza baliabideak (20 puntura arte): ekoiztetxearen historia (10 puntura arte), zuzendariaren historia (6 puntura arte) eta gidoilariarena (4 puntura arte). Aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, baina ez hainbeste egindako proiektu kopurua, baizik eta jasotako sariak, komunikabide espezializatuaren adierazitako kritikak eta txarteldegietako

emaitzak edo ikusle kopurua. Ekoiztetxeei dagokienez, aurreikusitako etorkizuneko proiektuak ere baloratuko dira dirulaguntza eskaera aurkezten den unean horiek duten sendotze mailaren arabera.

Produktorearen edo zuzendariaren lehen edo bigarren film luzea bada, 2 puntu gehituko zaizkio kasu bakoitzean, betiere bakoitzerako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada.

Laguntza eskaera aurkezten den egunean modalitate bereko aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuetan luzapenen bat indarrean duten ekoiztetxeek 5 puntuko zigorra izango dute.

b. Koproduktoreak eta nazio mailan eta nazioarte mailan hedatzeko proiektuak duen potentzialtasuna (gehienez 10 puntu): Koproduktoreak, ekoizle bazkidetuak eta banatzaileak bilatzeko plan baten bidez adierazita.

c) Proiektuaren eragin sozioekonomikoa (gehienez 20 puntu):

a. Arabako Lurralde Historikoarekin lotura (gehienez 10 puntu):) aurreikusitako filmaketa lekuak, proiektuaren gaia, Araban gastatu beharreko aurrekontua, etab.

b. Emakumeen parte-hartzea (gehienez 5 puntu):

– Zuzendaria emakumea bada: 2 puntu

– Ekoizle exekutiboa emakumea bada: 2 puntu

– Gidoilaria emakumea bada: puntu 1

Baterako zuzendaritza, koprodukzioa edo baterako egileak eta abar baldin badira, puntuak emakume kopuruaren proportzioa betez banatuko dira.

c. Jatorrizko euskarazko bertsioa (gehienez 5 puntu). Jatorrizko bertsioa euskaraz dagoela kontuan hartzeko, laguntza hauetarako aurkeztutako tratamendua edo gidoia euskaraz idatzita egon beharko da. Aukeraz, gaztelaniazko itzulpena gehitu ahal izango da Balorazio Batzordeko kideek balorazio lanak errazago egiteko.

Gidoiaren tratamendua euskaraz aurkeztuz gero eta dagozkion puntuak eskuratuz gero, gidoi osoa euskaraz aurkeztu beharko da justifikazio unean.

d) Aurrekontua eta proiektuaren garapenarekiko egokitasuna (gehienez 10 puntu): aurrekontua proposatutako proiektura nola egokitzen den.

13.2. Egindako balorazioaren oinarria eskatzaileek emandako froga elementuak izango dira, eta horiek Balorazio Batzordeak egiaztatu eta kontrastatu ahal izango ditu.

14. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

14.1. Dirulaguntza diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 50ekoa izango da; gehieneko muga 15.000,00 eurokoa izango da.

Laguntza jaso dezaketen proiektuetatik azkenak dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa jaso ezin duenean beharrezko kontsignazio ekonomikorik ez dagoelako, bakarrik adjudikatu daitezkeen zenbateko ekonomikoak jasoko du dirulaguntza, Balorazio Batzordearen arabera proiektuaren bideragarritasuna bermatzen baldin bada.

Modalitate horretako aurrekontu zuzkidura bukatzen ez baldin bada proposamenak falta direlako, proposamenean balorazio fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen ez dutelako edo aurreko paragrafoan aurreikusitako gertakaria jazotzen baldin bada azken proiektuaren bideragarritasuna bermatu gabe, Balorazio Batzordeak soberan dagoen zenbatekoa 1.500,00 eurora arteko finantzaketa gauzatzeko bideratzea proposatu ahal izango du, gehi hasierako 15.000,00 euroko emakida proposatu ahal izango du aurreikusitako proiektuentzat, ezarritako dirulaguntzaren ehunekora iristen ez baldin badira.

14.2 Koprodukzioak baldin badira Arabako Foru Aldundiaren laguntza ez da inolaz ere ekoiztetxe eskatzailearen partaidetza errearen ehuneko 50 baino gehiagokoa izango, eta gutxienez azken ekoizpenaren ehuneko 25 izan beharko du.

14.3. Bestelako laguntza publikoak jasoz gero, guztien batura ezin izango da proiektuaren kostuen ehuneko 75 baino gehiagokoa izan.

15. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

15.1. Proiektuentzako laguntzen ordainketa justifikatu beharreko aurrerapen gisa egingo da. Hala, dirulaguntzaren ehuneko 75 ebazpena onartu ondoren emango da, eta gainerako ehuneko 25a dirulaguntzaren helburua justifikatu ondoren ordainduko da. Horretarako, atal honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

15.2. Emandako laguntza justifikatuta dagoela onartzeko, onuradunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan justifikazioko kontu erraztu hau aurkeztu beharko du 2022ko urriaren 31rako:

- a) Egindako jardueri eta jasotako emaitzei buruzko txostena.
- b) Gastuen eta diru sarreraren laburpena.
- c) Jarduerak eragindako gastuen zerrenda, BEZa kanpo, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Araban zein gastu egin diren ere zehaztu beharko da.
- d) Hasiera batean aurkeztutako aurrekontutik egon diren desbiderapenak.
- e) Gidoi osoa eta zuzendutakoa.
- f) Gidoilariarekin eskubide lagapenari buruz egindako kontratua gutxienez bi urterako edo egingo den lanaren eskubideak erosteko aukera kontratua, gutxienez bi urterako.
- g) Lan planaren banaketa berria eta ekoizpenaren behin-behineko aurrekontu berria.
- h) Filmaketa lekuei buruzko dokumentazioa: argazki etiketatuak, baimenak, eta abar.
- i) Casting-etarako behin-behineko proposamenak.
- j) Marketin eta banaketa plan xehatua.
- k) Egonez gero, editatutako promozio materialen ale bana. Promoziorako eduki digitalak dituzten webguneen estekak.
- l) Erantzukizunpeko adierazpen eguneratua (laguntza eskabidean egindakoaren antzekoa).

15.3. Aurreko paragrafoan adierazitako epea gehienez ere urtebetez luzatu ahal izango da (beste luzapen bat eskatzen duen ezinbesteko kasuetan izan ezik), onuradunak hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko eskaera egin ondoren eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak proposatuko ebazpena onetsi ondoren.

15.4. Gainera, onuradunek egiaztatu egin beharko dute 11.3.b) , 11.4., eta 14.3. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela.

15.5. Kontuan izan beharko da emandako dirulaguntza aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren portzentaje bat dela; beraz, proiektuaren azken kostua aurrekontu hori baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da. Hori guztia 14.1 artikuluaaren aplikazioari kalterik egin gabe.

15.6. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak onuradunari eskatu ahal izango dio jarduerak garatzeko gastuen zerrendan dauden kostuen ordainketen fakturak eta ordainagiriak aurkezteko, dirulaguntza era egokian aplikatu dela egiaztatzeko.

III. kapitula

Laguntzak ikus-entzunezkoen ekoizpenerako

16. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak eta gastuak

16.1. Ekoizpen modalitate hauek jaso ahal izango dituzte laguntzak:

- a) Film luze zinematografikoak eta sormen dokumentalak ekoiztea, kapitulu honetako I. atalean ezarritako terminoetan.
- b) Film laburrak ekoiztea, kapitulu honetako II. atalean ezarritako terminoetan.
- c) Serieak ekoiztea, kapitulu honetako III. atalean ezarritako terminoetan.

16.2. Ezingo dute laguntzarik jaso 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik estreinatutako lanek.

16.3. Dirulaguntza jaso ahal izango dute ekoizpen kostuek, film baten kostuen aintzatespena eta ekoizlearen inbertsioaren aintzatespena arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan aurreikusitako terminoetan.

17. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Behar bezala betetako eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

17.1. Eskatzailearen inguruko agiriak:

- a) Laguntza eskatzen duenaren nortasuna egiaztatzea.
- b) EJRen 961.1 epigrafean "film zinematografikoen ekoizpena (bideoak barne)" alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- c) Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuko (ICAA) Zinematografia eta Ikus Entzunezko enpresen erregistroaren I. atalean, ekoizpena, izena emanda dagoenaren ziurtagiria.

17.2. Proiektuari buruzko dokumentazioa.

17.2.1 Eskatutako agiriak:

- a) Proiektu berarentzako eskatutako eta jasotako laguntzen adierazpena eta horien zenbatekoa, ereduaren arabera.
- b) Proiektuaren memoria, honako hauek jasotzen dituena:
 - Proiektuaren ezaugarri teknikoak.
 - Proiektuaren azalpen artistikoa: asmoak, historia, pertsonaiak, erreferentziak, etab.
 - Fitxa teknikoa eta artistikoa (parte hartzaileak).
- c) Gidoiaren sinopsia. Serieen kasuan, seriearen sinopsi orokorra
- d) Gidoi osoa. Serieen kasuan, kapitulu guztien gidoia ez badago, kapitulu pilotuaren gidoi osoa, eta gainerako kapituluaren sinopsia.
- e) Jatorrizko gidoiaren eta/edo lanaren jabetza eskubideen ziurtagiria, eta horrelakorik ez baldin badago, egiaztatu egin beharko da hitzartuta daudela eskubide lagapeneko kontratuaren aukera eta etorkizun baldintzak. Animazio obren kasuan, proiektuaren oinarri diren diseinu grafikoaren, marrazkien, sorkuntza plastikoaren edo irudien titulartasuna egiaztatzea.
- f) Aurrekontu xehatua partiden arabera, ICAAren eredia jarraituz, araba.eus webgunean eskuragarri dagoena (KSlen deialdian).
- g) Ekoizpen plana, aurreikusitako egutegia eta filmaketa plana barne (edo animazio prozesuaren plana, hala badagokio), denbora eta kokalekuak adierazita. Plan horretan berariaz adierazi beharko da Araban filmaketa egunen kopurua eta egun guztien kopurua, edo, animazio proiektua bada, hura egitea aurreikusita dagoen estudioaren izena eta IFK.

h) Finantzaketa plana eta finantzaketa iturriak, ezarritako ereduaren arabera. Horrekin batera ereduari adierazitako finantzaketa iturria jaso dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, besteak beste erakunde emaileek emandako dirulaguntzen emakida ebazpenak, hirugarrenekin sinatutako ustiapen kontratuak, mailegu polizak, abalen bitartez bermatutako baliabide propioak (film laburrak direnean ez da abala beharrezkoa izango eta nahikoa izango da transferentziaren banku ziurtagiria aurkeztea. Ziurtagiri horretan berariaz agertu beharko dira jatorri eta helburu kontuak, agindu emailea, onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua) eta sinatutako kapitalizazio konpromisoak.

i) Proiekturako proposatutako zuzendariaren eta gidolariaren idatzizko onarpena.

j) Koprodukzio kontratuen kopia konpultsatuta, halakorik badago. Film luzeetarako:

– Nazioarteko koprodukzioak: Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) koprodukzio proiektua onartzeko ebazpena eta koproduttore guztiek sinatutako kontratuaren azken bertsioa.

– Koprodukzio nazionalak: fede emaile batek legeztatutako sinadurak dituen kontratuaren azken bertsioa.

17.2.2. Agiri osagarriak:

a) Ekoiztetxearen historiala, "Ekoiztetxearen historiala" eranskinaren arabera, eta ikusle kopurua edo txarteldegiko emaitzak, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero. Gainera, hurrengo bi urteetarako dituen ekoizpen aurreikuspenak.

b) Zuzendariaren eta gidolariaren historial artistiko profesionala, txarteldegietako emaitzak edo ikusle kopurua, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero.

c) Merkaturatze eta banatze plan xehatua.

d) Kontratuak, edo kontraturik ez baldin badago erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo sinatutako interes gutunak, hala badagokio egiaztatzen dutenak zuzendaritza, ekoizpen exekutibo, gidoi, argazkigintza zuzendaritza eta/edo musika konposizio lanetan emakumeek parte hartu dutela.

e) Hala badagokio, film laburra Araban erakusteko baldintzak zehazten dituen konpromiso sinatua.

18. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Proiektu bakoitzerako emandako laguntza publikoen guztizkoak ezin izango du diruz lagun daitezkeen kostuen ehuneko 50 gaingitu, estatu kide batek baino gehiagok finantzatutako mugaz gaingiko ekoizpenen kasuan izan ezik, horietan EBko estatu kide bateko baino gehiagoko ekoizleek parte hartzen badute diruz lagun daitezkeen kostuen ehuneko 60ra irits baitaiteke. Muga horiek ez zaizkie aplikatuko ikus-entzunezko lan zailai. Ikus-entzunezko lan zailak zein diren eta zein muga dituzten jakiteko, Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatzen duen abenduaren 4ko 1084/2015 Errege Dekretuaren 21.2 artikuluan ezarritakoa beteko da.

I. atala

Film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak

19. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

19.1 Laguntza modalitate honen barnean egongo dira fikziozko film luzeak, animaziozko film luzeak eta sormenezko dokumentalak, edozein hizkuntzatan sortutakoak.

19.2. Ondorio horietarako fikziozko eta animaziozko film luzea izango da hirurogei minutuko edo gehiagoko ikus-entzunezko lan unitarioa, amaiera duena.

19.3. Sormen dokumentalak izango dira gaia errealitate hartua dutenak eta lan originalak direnak, gai zehatz bati buruzko ikerketa edo analisi lanak, hirurogei minutu edo gehiago irauten dutenak, helburua zineman proiektatzea denean, eta berrogeita bost minutu edo gehiago irauten dutenak helburua telebistan edo plataforma digitaletan erakustea denean.

19.4. Onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenaren aurrekontuaren ehuneko 30ekin baliokidea den ehunekoa gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisikoek eta juridikoek egindako lanetarako erabili beharko du. Koprodukzioa egonez gero ehuneko 30 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

20. artikulua. Balioespen irizpideak

20.1. Eskaerak baloratzeko, jarraian adierazten diren irizpideak erabiliko dira eta, gutxienez, 50 puntu beharko dira proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan.

a) Proiektuaren kalitatea eta balio artistikoa (gehienez 40 puntu): gutxienez, 20 puntu lortu behar dira irizpide honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko. Proiektuak dirulaguntza jaso badu aurreko deialdietan, beste edozein modalitatetan, 5 puntu gehituko zaizkio irizpide honi, betiere horretarako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada. Hala ere, laguntza hori kontuan hartzeko, emandako dirulaguntza behar bezala gauzatu eta justifikatu beharko da, dagokion deialdiaren araudiaren arabera.

– Proiektuaren originaltasuna eta egingarritasuna (20 puntu, gehienez).

– Gidoia: kalitatea, egitura, pertsonaien tratamendua eta garapen maila (gehienez 20 puntu).

b) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 40 puntu):

a. Aurrekontua eta proiektuaren garapenarekiko egokitasuna (gehienez 10 puntu): proiektua gauzatzeko gastu aurrekontuaren egokitasuna eta ekoizpen planarekin bat etortzea.

b. Ekoiztetxe eskatzailearen kaudimen ekonomikoa eta profesionala (gehienez 10 puntu). Puntu horiek esleitzeko kontuan hartuko dira egindako eta estreinatutako film luzeen eta dokumentalen kopurua, txarteldegietako emaitzak edo ikusle kopurua, jaialdietan hautatuak izatea eta sariak jaso izana, enpresaren antzintasun urteak eta ekoizpen aurreikuspenak.

Ekoiztetxearen lehen edo bigarren film luzea bada, 2 puntu gehituko zaizkio, betiere atal honetarako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada.

Eskatzailea Interes Ekonomikoko Taldea (IET) denean, kaudimena taldeko kide den ekoiztetxe independenteak aurkeztuko du. Era berean, ekoiztetxe hori taldeko gehiengodun kidea izango da laguntza eskatzen den unean eta gainera, taldean administrari kargua izan beharko du.

Laguntza eskaera aurkezten den egunean modalitate bereko aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuetan luzapenen bat indarrean duten ekoiztetxeek 5 puntuko zigorra izango dute.

c. Zuzendariaren eta gidoilariaren historia (gehienez 8 puntu): zuzendariaren historia (gehienez 4 puntu) eta gidoilariaren historia (gehienez 4 puntu): Aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, baina ez hainbeste egindako proiektu kopurua, baizik eta txarteldegietako emaitzak edo ikusle kopurua, jasotako sariak eta komunikabide espezializatuetan adierazitako kritikak.

Baterako zuzendaritza edo egiletza lanak direnean proportzionalki kontuan hartuko dira.

Zuzendariaren edo gidoilariaren lehen edo bigarren film luzea bada, 2 puntu gehituko zaizkio kasu bakoitzean, betiere bakoitzerako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada.

d. Finantzaketa plana, banaketa eta marketin estrategia, koprodukzioak (gehienez 7 puntu).

e. Proiektuak aurrekontuarekiko duen finantzaketa (gehienez 5 puntu). Proiektuaren finantza baliabideek gauzatzeko aurrekontu osoarekiko osatzen duten ehunekoa kalkulatu da Baliabide horiek justifikatzeko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidea adierazten duten hiru-garrenekin sinatutako ustiapen kontratuen egiaztagiririak aurkeztuko dira (eskubideen lagapen

kontratuak, koprodukzio eta banaketa kontratuak), baita banku abalaren bitartez bermatutako baliabide propioak edo elkarrekiko bermea duen sozietatearen abala eta film luzearen aurrekontuaren ehuneko 15era arteko kapitalizazioak ere. Gutxienez ehuneko 30eko finantzaketa duten proiektuek gehieneko puntuazioa lortuko dute, eta puntu bat kenduko zaie ehuneko 5 gutxiagoko.

c) Proiektuaren eragin sozioekonomikoa (gehienez 20 puntu):

a. Filmaketa Arabako Lurralde Historikoan egitea (gehienez 10 puntu). Puntu horiek filmaketa Arabako Lurralde Historikoan gauzatutako egunen arabera banatuko dira, aurreikusitako filmaketaren iraupen osoa kontuan hartuz. Animazio lanak direnean filmaketa egun bat animazio estudioan lan egindako egun bat izango da eta Araban filmatu dela kontuan hartuko da animazio estudio horren egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan kokatuta baldin badaude.

b. Emakumeen parte-hartzea (gehienez 5 puntu).

Zuzendaria emakumea bada: 2 puntu

Ekoizle exekutiboa emakumea bada: puntu 1

Gidoilaria emakumea bada: puntu 1

Argazki zuzendaria edo musikagilea emakumea bada: puntu 1

Baterako zuzendaritza, koprodukzioa edo baterako egileak eta abar baldin badira puntuak emakume kopuruaren proportzioa betez banatuko dira.

c. Jatorrizko euskarazko bertsioa (gehienez 5 puntu): jatorrizko bertsioa euskaraz dagoela kontuan hartzeko gidoia jatorriz euskaraz idatzita egon beharko da. Aukeraz, gaztelaniazko itzulpena gehitu ahal izango da Balorazio Batzordeko kideek balorazio lanak errazago egiteko.

20.2. Egindako balorazioaren oinarria eskatzaileek emandako frogaren elementuak izango dira, eta horiek Balorazio Batzordeak egiaztatu eta kontrastatu ahal izango ditu.

21. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

21.1. Gehieneko kopurua ekoizpenaren aurrekontuaren ehuneko 50 izango da, eta muga 30.000,00 eurokoa izango da 1 milioi eurora arteko aurrekontua duten fikziozko film luzeen kasuan, eta 20.000,00 euroko muga gainerakoetan.

Laguntza jaso dezaketen proiektuetatik azkenak dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa jaso ezin duenean beharrezko kontsignazio ekonomikorik ez dagoelako, bakarrik adjudikatu daitezkeen zenbateko ekonomikoak jasoko du dirulaguntza, Balorazio Batzordearen arabera proiektuaren bideragarritasuna bermatzen baldin bada.

Modalitate horretako aurrekontu zuzkidura bukatzen ez baldin bada proposamenak falta direlako, proposamenek balorazio fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen ez dutelako edo aurreko paragrafoan aurreikusitako gertakaria jazotzen baldin bada azken proiektuaren bideragarritasuna bermatu gabe, Balorazio Batzordeak soberan dagoen zenbatekoa 3.000,00 eurora arteko finantzaketa gauzatzeko zuzentzea proposatu ahal izango du, gehi hasierako 20.000,00 euroko emakida (edo 30.000,00 eurokoa, hala badagokio) proposatu ahal izango du aurreikusitako proiektuentzat, ezarritako dirulaguntzaren ehunekora iristen ez baldin badira.

21.2. Ekoizle indibidualak baldin badira laguntza ez da izango ekoizleak egindako inbertsioa baino gehiagokoa.

Ondorio horietarako, ekoizleak egindako inbertsioa izango da norbere baliabideekin, itzuli daitezkeen kanpokoen baliabideekin eta film luzea ustiatzeko eskubide lagapen kontzeptuan jasotakoak. Edonola ere, ez dira ekoizlearen inbertsioak izango jasotako dirulaguntzak eta edozein administrazio, erakunde, enpresa edo sozietate publikok egindako itzuli ezin daitezkeen ekarpenak, horiek zuzenean edo zeharka telebistaren zerbitzu publikoa kudeatzen dutenean.

21.3. Koprodukzioak baldin badira Arabako Foru Aldundiaren laguntza ez da inolaz ere ekoiztetxe eskatzailearen partaidetza errearen ehuneko 50 baino gehiagokoa izango, ezta ekoizle eskatzailearen inbertsioaren ehuneko 50 baino handiagoa ere.

Era berean, ekoizle eskatzaileak ekoizpenaren ehuneko 25 izan beharko du gutxienez.

22. artikulua. Egikaritze epeak

22.1. Laguntza jakinarazten denetik onuradunak gehienez ere hiru urteko epea izango du lana bukatzeko, lehenengo kopia estandarra jasotzea barne.

22.2. Filmaketaren hasiera eta bukaera egunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio. Filmaketa jakinarazpena baino lehenago edo jakinarazi eta gutxira hasten baldin bada, horren berri emango da jakinarazpena gertatu eta 10 egun balio-duneko epean.

23. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

23.1. Lehenengo ordaintetan ehuneko 40 ordainduko da. Justifikatu beharreko aurrerapena izango da eta emakida ebazpena onartu ondoren ordainduko da.

23.2. Gainerako ehuneko 60a ordaintzeko bigarren ordainteta 2022ko urriaren 31ra artekoa izango da, behin Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren.

- a) Behin betiko aurrekontua eta ordaintza egutegia.
- b) Proiektuaren kostu osoa ordaintzeko finantzaketaren ehuneko 50 dagoela egiaztatzen duen agiria.
- c) Langile artistikoekin (aktore protagonistak) eta teknikariek (taldeko zuzendariak eta nagusiak) sinatutako kontratuak.
- d) Beste laguntza eta/edo dirulaguntza batzuk jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- e) Koprodukzio kontratu irmoak, hala badagokio.
- f) Filmaren ustiapen eskubideen kontratu irmoak.
- g) Ekoizpena gauzatzeko aldi ekoiztetzeko langileak altan egongo direnari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- h) Finantzaketa planaren egiaztatpena. Horretarako, honako jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatutako aurkeztuko dira:
 - Telebista kateekin, plataforma digitalekin eta/edo sozietate banatzaileekin sinatutako kontratuak.
 - Onuradunak finantzaketa planean kontsignatutako funts propioak dituela eta horien titularra dela egiaztatzen duen bankuaren agiria.
 - Onuradunak filma finantzatzeko jasotako bestelako laguntzen edo dirulaguntzen egiaztatzea.
 - Ekoizpenaren kostuak ordaintzeko diru-sarrerak sortzen dituzten bestelako finantzaketa bideak.
- i) Egutegi eguneratua eta filmaketa plana, denbora eta kokapenak adieraziz. Animazio lanak baldin badira, animazio estudioarekin sinatutako kontratu irmoa.
- j) Erantzukizunpeko adierazpen eguneratua (laguntza eskabidean egindakoaren antzekoa).

23.3. Aurreko paragrafoan adierazitako epea gehienez ere urtebetez luzatu ahal izango da (beste luzapen bat eskatzen duen ezinbesteko kasuetan izan ezik), onuradunak hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko eskaera egin ondoren eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak proposatuko ebazpena onetsi ondoren.

23.4. Emandako laguntza justifikatuta dagoela onartzeko onuradunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan honako dokumentazioa aurkeztu beharko du laguntza jakinarazi eta hiru urteko epean:

a) Pendrive, DVD edo BluRay bat estreinatu den bertsio komertzial bakoitzeko, eta lana Euskal Filmotekan gordailutzearen egiaztatzea.

b) Kontu ikuskatzaileak emandako txosten berezia. Bertan egiaztatuko da filmaren kostua, ekoizleek egindako ekarpenak, titulartasun kuotak ekoizpenari dagokionez eta laguntza eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazitako Arabako Lurralde Historikoaren gutxieneko enpresa eta giza baliabideen ehuneko batearen egiaztatzea.

23.5. Kontuan izan beharko da emandako dirulaguntza aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren portzentaje bat dela; beraz, proiektuaren azken kostua aurrekontu hori baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da. Hori guztia 21.1 artikulua aplikazioari kalterik egin gabe.

II. atala

Film laburrak ekoizteko laguntzak

24. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

24.1. Modalitate horren barnean laguntzak emango dira edozein hizkuntzatan film labur zinematografikoak egiteko.

24.2. Horretarako, film laburrak izango dira edozein euskarritan egindako filmak, eta 60 minutu baino gutxiagoko gomendatutako iraupena dutenak.

24.3. Onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenaren aurrekontuaren ehuneko 30ekin baliokidea den ehuneko gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisikoek eta juridikoek egindako lanetarako erabili beharko du. Koprodukzioa egonez gero, ehuneko 30 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

25. artikulua. Balioespen irizpideak

25.1. Eskaerak baloratzeko, jarraian adierazten diren irizpideak erabiliko dira eta, gutxienez, 50 puntu beharko dira proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan.

a) Proiektuaren kalitatea eta balio artistikoa (gehienez 40 puntu): gutxienez, 20 puntu lortu behar dira irizpide honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko.

a. Proiektuaren originaltasuna eta egingarritasuna (20 puntu, gehienez).

b. Gidoia: kalitatea, egitura, pertsonaien tratamendua eta garapen maila (gehienez 20 puntu).

b) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 40 puntu):

a. Inplikaturako enpresa eta giza baliabideak (15 puntura arte): ekoiztetxearen historia (7 puntura arte), zuzendariaren historia (4 puntura arte) eta gidolariarena (4 puntura arte). Aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, baina ez hainbeste egindako proiektu kopurua, baizik eta jasotako sariak, komunikabide espezializatuetan adierazitako kritikak eta txarteldagietako emaitzak edo ikusle kopurua. Ekoiztetxei dagokienez, aurreikusitako etorkizuneko proiektuak ere baloratuko dira dirulaguntza eskaera aurkeztu den unean horiek duten sendotze mailaren arabera. Koprodukzioa, baterako zuzendaritza edo baterako egiletza bada, modu proportzionalean kontuan hartuko dira.

Produktorearen edo zuzendariaren lehen edo bigarren film luzea bada, 2 puntu gehituko zaizkio kasu bakoitzean, betiere bakoitzerako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada.

Laguntza eskaera aurkezten den egunean modalitate bereko aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuetan luzapenen bat indarrean duten ekoiztetxeek 5 puntuko zigorra izango dute.

b. Aurrekontua eta proiektuaren garapenarekiko egokitasuna (gehienez 10 puntu): proiektua gauzatzeko gastu aurrekontuaren egokitasuna eta ekoizpen planarekin bat etortzea.

c. d) Autofinantzaketa edo finantzaketa pribatua (gehienez 10 puntu): laguntza publikoetatik ez datorren finantzaketa baloratuko da. Autofinantzaketa maila handiena duenak gehieneko puntuazioa lortuko du, eta gainerakoek proportzionalki, ekoiztetxe eskatzailearen enpresa arriskua bereziki kontuan hartuta.

d. Finantzaketa plana, banaketa eta marketin estrategia. (gehienez 5 puntu).

c) Proiektuaren eragin sozioekonomikoa (gehienez 20 puntu):

a. Filmaketa Arabako Lurralde Historikoan egitea (gehienez 7 puntu): puntu horiek filmaketa Arabako Lurralde Historikoan gauzatzutako egunen arabera banatuko dira, aurreikusitako filmaketaren iraupen osoa kontuan hartuz. Animazio lanak direnean filmaketa egun bat animazio estudioan lan egindako egun bat izango da eta Araban filmatu dela kontuan hartuko da animazio estudio horren egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan kokatuta baldin badaude.

b. Emakumeen parte-hartzea (gehienez 5 puntu):

– Zuzendaria emakumea bada: 2 puntu

– Ekoizle exekutiboa emakumea bada: 2 puntu

– Gidoilaria emakumea bada: puntu 1

c. Jatorrizko euskarazko bertsioa (gehienez 5 puntu): jatorrizko bertsioa euskaraz dagoela kontuan hartzeko gidoia jatorriz euskaraz idatzita egon beharko da. Aukeraz, gaztelaniazko itzulpena gehitu ahal izango da Balorazio Batzordeko kideek balorazio lanak errazago egiteko.

d. Obra Araban erakustea (gehienez 3 puntu):

ekoiztetxeak obra Araban jendaurrean erakusteko konpromisoa hartzen badu, kalifikazioa lortu eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan.

26. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

26.1. Dirulaguntza aurrekontuaren ehuneko 50ekoa izango da, eta gehienezko zenbatekoa 10.000,00 eurokoa izango da.

26.2. Laguntza koprodukzio baterako eskatzen denean, Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza ez da inolaz ere ekoiztetxe eskatzailearen partaidetza errearen ehuneko 50 baino gehiagokoa izango. Era berean, ekoizle eskatzaileak ekoizpenaren ehuneko 25 izan beharko du gutxienez.

26.3. Laguntza jaso dezaketen proiektuetatik azkenak dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa jaso ezin duenean beharrezko kontsignazio ekonomikorik ez dagoelako, bakarrik adjudikatu daitekeen zenbateko ekonomikoak jasoko du dirulaguntza, Balorazio Batzordearen arabera proiektuaren bideragarritasuna bermatzen baldin bada.

27. artikulua. Egikaritze epeak

27.1. Laguntza jakinarazten denetik aurrera, onuradunak 2022ko urriaren 31ra arteko epea izango du lana bukatzeko, lehenengo kopia estandarra eskuratzea barne. Salbuetsi egingo dira justifikatutako kasuak.

27.2. Filmaketaren hasiera eta bukaera egunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio. Filmaketa jakinarazpena baino lehenago edo jakinarazi eta gutxira hasten baldin bada, horren berri emango da jakinarazpena gertatu eta 10 egun balioduneko epean.

28. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

28.1. Film laburrak ekoizteko laguntzak justifikatu beharreko aurrerapen gisa ordainduko dira. Dirulaguntzaren ehuneko 50 emakida ebazpena onartu ondoren ordainduko da, eta gainerako ehuneko 50a dirulaguntzaren helburua justifikatu ondoren. Horretarako, atal honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

28.2. Emandako laguntza justifikatuta dagoela onartzeko onuradunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan honako dokumentazioa aurkeztu beharko du 2022ko urriaren 31 aurretik:

a) Pendrive, DVD edo BluRay bat estreinatu den bertsio komertzial bakoitzeko, eta lana Euskal Filmotekan gordailutzearen egiaztatzea.

b) Kontu ikuskatzaileak emandako txosten berezia. Bertan egiaztatuko da film laburraren kostua, ekoizleek egindako ekarpenak, titulartasun kuotak ekoizpenari dagokionez eta laguntza eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazitako Lurralde Historikoaren enpresa eta giza baliabideen ehunekoa bete denaren egiaztatzea.

c) Txosten horren ordez Film baten kostuen aintzatespena eta ekoizlearen inbertsioaren aintzatespena arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 7. artikuluan aurreikusitako dokumentazioaren jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztu ahal izango dira.

d) 24.3. artikuluan zehaztutakoa betetzen dela egiaztatu beharko da.

28.3. Aurreko paragrafoan adierazitako epea gehienez ere urtebetez luzatu ahal izango da (beste luzapen bat eskatzen duen ezinbesteko kasuetan izan ezik), onuradunak hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko eskaera egin ondoren eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak proposatuko ebazpena onetsi ondoren.

28.4. Kontuan izan beharko da emandako dirulaguntza aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren portzentaje bat dela; beraz, proiektuaren azken kostua aurrekontu hori baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da. Hori guztia 26.1 artikuluaaren aplikazioari kalterik egin gabe.

III. atala

Serieak ekoizteko laguntzak

29. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

29.1. Laguntza modalitate honen barruan, telebistarako edo Internet bidez zabaltzeko ikus-entzunezko lan seriatuak egitea lagunduko da. Diruz lagundu ahal izateko, gutxienez hiru kapitulu izan beharko dituzte, eta formatu hauetakoren batera egokitu beharko dira:

a) Fikzio serieak, guztira laurogeita hamar minutu edo gehiago irauten dutenak.

b) Animazio serieak, guztira gutxienez hogeita lau minutu irauten dutenak.

c) Sorkuntza dokumentalak, hau da, gaia errealitatetik hartua duten proiektuak, aldi berean lan originalak direnak —gai jakin baten inguruko ikerketa edo analisia—, eta gutxienez berrogeita hamar minutuko iraupena dutenak.

29.2. Serie bateko lehenengo denboraldiak bakarrik jaso dezake dirulaguntza.

29.3. Onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenaren aurrekontuaren ehuneko 30ekin baliokidea den ehunekoa gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisikoek eta juridikoek egindako lanetarako erabili beharko du. Koprodukzioa egonez gero ehuneko 30 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

30. artikulua. Balioespen irizpideak

30.1. Eskaerak baloratzeko, jarraian adierazten diren irizpideak erabiliko dira eta, gutxienez, 50 puntu beharko dira proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan.

a) Proiektuaren kalitatea eta balio artistikoa (gehienez 40 puntu): gutxienez, 20 puntu lortu behar dira irizpide honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko. Proiektuak dirulaguntza jaso badu aurreko deialdietan, beste edozein modalitatetan, 5 puntu gehituko zaizkio irizpide honi, betiere horretarako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada. Hala ere, laguntza hori kontuan hartzeko, emandako dirulaguntza behar bezala gauzatu eta justifikatu beharko da, dagokion deialdiaren araudiaren arabera.

a. Proiektuaren originaltasuna eta egingarritasuna (20 puntu, gehienez).

b. Gidoia, kalitatea, egitura, pertsonaien tratamendua eta garapen maila (gehienez 20 puntu).

b) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 40 puntu):

a. Aurrekontua eta proiektuaren garapenarekiko egokitasuna (gehienez 10 puntu): proiektua gauzatzeko gastu aurrekontuaren egokitasuna eta ekoizpen planarekin bat etortzea.

b. Ekoiztetxe eskatzailearen kaudimen ekonomikoa eta profesionala (gehienez 10 puntu). Puntu horiek esleitzeko kontuan hartuko dira egindako eta estreinatutako film luzeen eta dokumentalen kopurua, txarteldegietako emaitzak edo ikusle kopurua, jaialdietan hautatuak izatea eta sariak jaso izana, enpresaren antzinasun urteak eta ekoizpen aurreikuspenak.

Ekoiztetxearen lehen edo bigarren film luzea bada, 2 puntu gehituko zaizkio, betiere atal honetarako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada.

Eskatzailea Interes Ekonomikoko Taldea (IET) denean, kaudimena taldeko kide den ekoiztetxe independenteak aurkeztuko du. Era berean, ekoiztetxe hori taldeko gehiengodun kidea izango da laguntza eskatzen den unean eta gainera, taldean administrari kargua izan beharko du.

Laguntza eskaera aurkezten den egunean modalitate bereko aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuetan luzapenen bat indarrean duten ekoiztetxeek 5 puntuko zigorra izango dute.

c. Zuzendariaren eta gidoilariaren historia (gehienez 8 puntu): zuzendariaren historia (gehienez 4 puntu) eta gidoilariaren historia (gehienez 4 puntu): Aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, baina ez hainbeste egindako proiektu kopurua, baizik eta txarteldegietako emaitzak edo ikusle kopurua, jasotako sariak eta komunikabide espezializatuetan adierazitako kritikak.

Baterako zuzendaritza edo egiletza lanak direnean proportzionalki kontuan hartuko dira.

Zuzendariaren edo gidoilariaren lehen edo bigarren film luzea bada, 2 puntu gehituko zaizkio kasu bakoitzean, betiere bakoitzerako ezarritako puntu-muga gainditzen ez bada.

d. Finantzaketa plana, banaketa eta marketin estrategia, koprodukzioak (gehienez 7 puntu).

e. Proiektuak aurrekontuarekiko duen finantzaketa (gehienez 5 puntu). Proiektuaren finantza baliabideek gauzatzeko aurrekontu osoarekiko osatzen duten ehunekoa kalkulatu da Baliabide horiek justifikatzeko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidea adierazten duten hiru-garrenekin sinatutako ustiapen kontratuen egiaztagiria aurkeztuko dira (eskubideen lagapen kontratuak, koprodukzio eta banaketa kontratuak), baita banku abalaren bitartez bermatutako baliabide propioak edo elkarrekiko bermea duen sozietatearen abala eta film luzearen aurrekontuaren ehuneko 15era arteko kapitalizazioak ere. Gutxienez ehuneko 30eko finantzaketa duten proiektuek gehieneko puntuazioa lortuko dute, eta puntu bat kenduko zaie ehuneko 5 gutxiagoko.

c) Proiektuaren eragin sozioekonomikoa (gehienez 20 puntu):

a. Filmaketa Arabako Lurralde Historikoan egitea (gehienez 10 puntu). Puntu horiek filmaketa Arabako Lurralde Historikoan gauzatuak egunen arabera banatuko dira, aurreikusitako filmaketaren iraupen osoa kontuan hartuz. Animazio lanak direnean filmaketa egun bat animazio

estudioan lan egindako egun bat izango da eta Araban filmatu dela kontuan hartuko da animazio estudio horren egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan kokatuta baldin badaude.

b. Emakumeen parte-hartzea (gehienez 5 puntu).

- Zuzendaria emakumea bada: 2 puntu
- Ekoizle exekutiboa emakumea bada: puntu 1
- Gidoilaria emakumea bada: puntu 1
- Argazki zuzendaria edo musikagilea emakumea bada: puntu 1

Baterako zuzendaritza, koprodukzioa edo baterako egileak eta abar baldin badira puntuak emakume kopuruaren proportzioa betez banatuko dira.

c. Jatorrizko euskarazko bertsioa (gehienez 5 puntu): jatorrizko bertsioa euskaraz dagoela kontuan hartzeko gidoia jatorriz euskaraz idatzita egon beharko da. Aukeraz, gaztelaniazko itzulpena gehitu ahal izango da Balorazio Batzordeko kideek balorazio lanak errazago egiteko.

30.2. Egindako balorazioaren oinarria eskatzaileek emandako frogaren elementuak izango dira, eta horiek Balorazio Batzordeak egiaztatu eta kontrastatu ahal izango ditu.

31. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

31.1. Gehieneko dirulaguntza ekoizpen aurrekontuaren ehuneko 50 izango da, 20.000,00 euroko mugarekin.

Laguntza jaso dezaketen proiektuetatik azkenak dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa jaso ezin duenean beharrezko kontsignazio ekonomikorik ez dagoelako, bakarrik adjudikatu daitezkeen zenbateko ekonomikoak jasoko du dirulaguntza, Balorazio Batzordearen arabera proiektuaren bideragarritasuna bermatzen baldin bada.

31.2. Ekoizle indibidualak baldin badira laguntza ez da izango ekoizleak egindako inbertsioa baino gehiagokoa.

Ondorio horietarako, ekoizlearen inbertsioetat hartuko da baliabide propioekin, itzuli beharreko kanpoko baliabideekin eta seriearen ustiapen eskubideen lagapen gisa lortutako kopurua. Edonola ere, ez dira ekoizlearen inbertsioak izango jasotako dirulaguntzak eta edozein administrazio, erakunde, enpresa edo sozietate publikok egindako itzuli ezin daitezkeen ekarpenak, horiek zuzenean edo zeharka telebistaren zerbitzu publikoa kudeatzen dutenean.

31.3. Koprodukzioak baldin badira Arabako Foru Aldundiaren laguntza ez da inolaz ere ekoiztetxe eskatzailearen partaidetza errealaireneko ehuneko 50 baino gehiagokoa izango, ezta ekoizle eskatzailearen inbertsioaren ehuneko 50 baino handiagoa ere. Era berean, ekoizle eskatzaileak ekoizpenaren ehuneko 25 izan beharko du gutxienez.

32. artikulua. Egikaritze epeak

32.1. Laguntza jakinarazten denetik onuradunak gehienez ere hiru urteko epea izango du lana bukatzeko, lehenengo kopia estandarra jasotzea barne.

32.2. Filmaketaren hasiera eta bukaera egunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio. Filmaketa jakinarazpena baino lehenago edo jakinarazi eta gutxira hasten baldin bada, horren berri emango da jakinarazpena gertatu eta 10 egun balio-duneko epean.

33. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

33.1. Lehenengo ordainketan ehuneko 40 ordainduko da. Justifikatu beharreko aurrerapena izango da eta emakida ebazpena onartu ondoren ordainduko da.

33.2. Gainerako ehuneko 60a ordaintzeko bigarren ordainketa 2022ko urriaren 31ra artekoa izango da, behin Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren.

- a) Behin betiko aurrekontua eta ordainketa egutegia.
- b) Proiektuaren kostu osoa ordaintzeko finantzaketaren ehuneko 50 dagoela egiaztatzen duen agiria.
- c) Langile artistikoekin (aktore protagonistak) eta teknikariek (taldeko zuzendariak eta nagusiak) sinatutako kontratuak.
- d) Beste laguntza eta/edo dirulaguntza batzuk jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- e) Koprodukzio kontratu irmoak, hala badagokio.
- f) Lanaren ustiapen eskubideen kontratu irmoak.
- g) Ekoizpena gauzatzeko aldiari ekoiztetzeko langileak altan egongo direnari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- h) Finantzaketa planaren egiaztatpena. Horretarako, honako jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatutako aurkeztutako dira:
 - Telebista kateekin, plataforma digitalekin eta/edo sozietate banatzaileekin sinatutako kontratuak.
 - Onuradunak finantzaketa planean kontsignatutako funts propioak dituela eta horien titularrak dela egiaztatzen duen bankuaren agiria.
 - Hala badagokio, onuradunak proiektua finantzatzeko jasotako beste laguntza edo dirulaguntza batzuen egiaztatpena.
 - Ekoizpenaren kostuak ordaintzeko diru sarrerak sortzen dituzten bestelako finantzaketa bideak.
- i) Egutegi eguneratua eta filmaketa plana, denbora eta kokapenak adieraziz. Animazio lanak baldin badira, animazio estudioarekin sinatutako kontratu irmoa.
- j) Erantzukizunpeko adierazpen eguneratua (laguntza eskabidean egindakoaren antzekoa).

33.3. Aurreko paragrafoan adierazitako epea gehienez ere urtebetez luzatu ahal izango da (beste luzapen bat eskatzen duen ezinbesteko kasuetan izan ezik), onuradunak hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko eskaera egin ondoren eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak proposatutako ebazpena onetsi ondoren.

33.4. Emandako laguntza justifikatuta dagoela onartzeko onuradunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan honako dokumentazioa aurkeztu beharko du laguntza jakinarazi eta hiru urteko epean:

- a) Pendrive, DVD edo BluRay bat estreinatu den bertsio komertzial bakoitzeko, eta lana Euskal Filmotekan gordailutzearen egiaztatzea.
- b) Kontu ikuskatzaileak emandako txosten berezia. Bertan egiaztatuko da proiektuaren kostua, ekoizleek egindako ekarpenak, titulartasun kuotak ekoizpenari dagokionez eta laguntza eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazitako Arabako Lurralde Historikoaren gutxieneko enpresa eta giza baliabideen ehuneko bete denaren egiaztatzea.

33.5. Kontuan izan beharko da emandako dirulaguntza aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren portzentaje bat dela; beraz, proiektuaren azken kostua aurrekontu hori baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da. Hori guztia 31.1 artikulua aplikazioari kalterik egin gabe.

IV. kapitulua

Gidoiak idazteko laguntzak

34. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

Modalitate honen barne laguntzak emango dira fikziozko eta animaziozko film luze zinematografikoen gidoiak idazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita daudenak. Ezingo dute dirulaguntzarik jaso guztiz garatutako gidoiek, eta hala, bakarrik gidoiaren tratamendua aurkeztea onartuko da.

35. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

35.1. Gidoia jatorrizko zein hizkuntzatan egingo den, hizkuntza horretan bakarrik aurkeztu beharko dira agiri hauek, egilea nor den jakiteko inolako bereizgarririk gabe:

- a) Gidoi proiektuaren argumentu sinopsia, 1 eta 3 orrialde artekoa.
- b) Gidoi proiektuaren tratamendu sekuentziatua, 15 eta 30 orrialde artekoa.
- c) Elkarrizketatutako sekuentzia, 3 eta 5 orrialde artekoa.
- d) Proiektuaren azalpen memoria. Bertan adierazi beharko da proiektua zergatik den intereskoa eta proiektuari eman nahi zaion izaera, 1 eta 3 orrialde artekoa.

35.2 Gainera, behar bezala betetako eskabidearekin batera dokumentazio hau aurkeztuko da:

- a) Laguntza eskatzen duenaren nortasuna egiaztatzea.
- b) JEZaren "jarduera profesionalak" 861 epigrafean alta emanda egotearen ziurtagiriaren kopia, hori baita zinema gidoilarietarako dagokiena.
- c) Gidoilariaren ibilbide artistikoa.
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, "Eranskina – Gidoiak" atalaren arabera, honako hau adieraziz:
 - i. ea zinema aretoetan erakusteko kalifikatuta dagoen film luzeren batean gidoilari gisa ageri den (film horien izenburuak eta ekoizpen urteak adierazi beharko dira).
 - ii. aurkeztutako tratamendua jatorrizko proiektua dela eta egun horretara arte gauzatu ez den proiektua dela.
 - iii. dirulaguntzaren xede den proiektua euskarazko testu bat bada, jatorrian euskaraz idatziko delako erantzukizunpeko adierazpena.
- e) Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratutako eta estreinatutako lan zinematografiko eta/edo ikus-entzunezkoen gidoilari gisa ageri dela egiaztatzen duen dokumentazioa, bai eta hainbat jaialditan lortutako sariak egiaztatzen dituen dokumentazioa ere.
- f) Erantzukizunpeko adierazpena, non adierazten den ez dela jaso bestelako erakunde publiko edo pribatuak xede berari begira eman dezaketen laguntzarik (ereduaren arabera).

36. artikulua. Balioespen irizpideak

36.1. Eskaerak bi fasetan baloratuko dira, jarraian adierazten diren irizpideen arabera, eta, gutxienez, 50 puntu beharko dira proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan.

36.1.1. 1. fasea (gehienez 65 puntu): 35.1 artikuluan adierazitako dokumentuen arabera baloratuko da.

- a) Proiektuaren originaltasuna eta kalitatea (gehienez 50 puntu). gutxienez 25 puntu lortu behar dira irizpide honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko.
 - a. Proiektuaren originaltasuna (gehienez 15 puntu).

b. Tratamenduaren eta sekuentziaren kalitatea (gehienez 25 puntu).

c. Gaiaren interesa (gehienez 10 puntu).

b) Egingarritasun edo bideragarritasun zinematografikoa (gehienez 15 puntu).

36.1.2. 2. fasea: (gehienez 35 puntu):

a) Proiektuaren eragin sozioekonomikoa (gehienez 25 puntu):

a. Jatorrizko euskarazko bertsioa (gehienez 10 puntu): gidoiaren tratamendua jatorriz euskaraz idazten bada eta horrela 10 puntuak lortzen badira, gidoia euskaraz aurkeztu beharko da justifikazio unean.

b. Arabako Lurralde Historikoarekin lotura (gehienez 5 puntu).

c. Generoaren ikuspegia txertatzea (gehienez 5 puntu)

d. Laguntza eskatzen duen egilea emakumea bada (gehienez 5 puntu).

b) Gidoilariaren historia profesionala (gehienez 10 puntu):

Eskatzailea gidoilari gisa agertzen den areto komertzialetan erakusteko kalifikatutako film luzeen gidoi bakoitzeko 2 puntu emango dira, gehienez 4 puntu.

Puntu 1 emango da jaialdietan saritutako film laburren gidoi bakoitzeko, edo 0,50 puntu jaialdietan erakutsitako film laburren gidoi bakoitzeko, eskatzailea gidoilari gisa ageri bada, gehienez 3 puntu.

0,25 puntu emango zaizkie estreinatu diren ikus-entzunezko lanen beste edozein gidoirengatik, eskatzailea gidoilaria izan bada, gehienez ere 3 puntura arte.

Baterako gidoilariak baldin badaude, alderdi hori kontuan hartuko da fase honetako balorazioan, eta puntuazioak modu proportzionalean banatuko dira.

37. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

37.1. Dirulaguntza 10.000,00 eurokoa izango da.

37.2. Modalitate honetan aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak helburu berdina duten eta beste erakunde publiko edo pribatu batek eman ditzakeen laguntzekin.

37.3. Eskatzaileak gidoiaren eskubideen ehuneko 50 izan beharko du gutxienez.

38. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

38.1. Gidoiak idazteko laguntzen ordainketa justifikatu beharreko aurrerapen gisa egingo da. Hala, ehuneko 75 emakida ebazpena onartu ondoren ordainduko da eta gainerako ehuneko 25a dirulaguntzaren helburua justifikatu ondoren. Horretarako, atal honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

38.2. Emandako laguntza justifikatu dela ulertuko da onuradunak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan 2022ko urriaren 31 aurretik (egun hori barne) bukatutako gidoi zinematografikoaren ale bat aurkezten duenean paperean edo euskarri digitalean (pdf formatuan), baita Jabetza Intelektualaren Erregistroan izena emanda dagoela adierazten duen egiaztagiraren kopia eta I. eranskineko eguneratutako erantzukizunpeko adierazpena aurkezten dituenean ere.